

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUKO ARKITEKTO LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

Epaimahai Kalifikatzaileak, 2021eko maiatzaren 20ko bileran, hau erabaki du:

1. Merezimenduen behin-behineko balorazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioei dagokionez:

- Imanol Agirre jaunak aurkeztutako erreklamazioa baiestea; izan ere, prestakuntza ikastaroen iraupenaren arabera, 4 puntu dagozkio guztira prestakuntza atalean.
- Iñaki Landa jaunak aurkeztutako erreklamazioa baiestea; izan ere, aurkeztu zuen dokumentazioaren arabera, gehieneko puntuazioa dagokio lan-esperientziako a) atalean, 60 puntu alegia.
- Izaro Huegun andreak lan-esperientziari buruz aurkeztutako erreklamazioa baiestea; izan ere, aurkeztu zuen dokumentazioaren arabera, guztira 58,61 hilabeteko lan-esperientzia du a) atalean, eta beraz, 58,61 puntu dagozkio atal horretan. Planaren aldaketari buruz aurkeztutako erreklamazioa ezestea; izan ere, oinarriek ez dute aurreikusi aldaketak baloratzea, idazketak soilik. Prestakuntzari buruz aurkeztutako erreklamazioa ezestea, alegatutako titulua ez delako lagungarri lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko.
- Oihana Arruarte andreak aurkeztutako erreklamazioa ezestea; izan ere, alegatzen duen titulua jada baloratua du behin-behineko emaitzan.
- Ane Imaz andreak lan-esperientziari buruz aurkeztutako erreklamazioak ezestea; izan ere, izen-emate epean aurkeztutako agirietan ez da egiaztatzen proiektuen egile edo zuzendaria denik. Prestakuntzari buruz aurkeztutako erreklamazioa ezestea; izan ere, oinarrietan ezarritako epearen ondoren amaitua da eta une honetan ezin dira agiri gehiago aurkeztu.

2. Argitaratzea merezimenduen behin betiko balioespena:

Behin betiko emaitzak:

1. Imanol Agirre (88 puntu)
2. Izaro Huegun (84,86 puntu)
3. Maider López-Garin (79,5 puntu)
4. Iker Elguero (78 puntu)



ZARAUZKO UDALA

5. Ainara Arbizu (77,5 puntu)
6. Oihana Arruarte (74 puntu)
7. Iñaki Landa (73,25 puntu)
8. Enara Mendizabal (70 puntu)
9. Irantzu Ortuzar (66,54 puntu)
10. Olatz Otaegi (65,02 puntu)
11. Amaia Iriondo (64 puntu)
12. Imanol Iturria (63,5 puntu)
13. Amaia Illarreta (20,40 puntu)

Ez gaindituak:

1. Ane Imaz (15,75 puntu)
2. Oihana Beltran (12,5 puntu)
3. Aitor Zubizarreta (5,5 puntu)

3. Oinarrietan ezarritakoa betez, Imanol Agirre Manterola jaunaren aldeko izendapen-proposamena helaraztea Alkate-Udalburuari.

Oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautagai proposatuak emaitzak argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 5 egun balioduneko epean hautaketa-prozesuan aurkeztutako agirien jatorrizkoak ekarri beharko ditu Giza Baliabideetako departamentura.

Denek jakin dezaten argitaratzen da hau Zarauzko Udaleko web-orrian.

Zarautzen, 2021eko maiatzaren 20ean

Epaimahai Kalifikatzailearen idazkaria
Amaia Abendaño Mujika